

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### IRUÑA OKAKO UDALA

#### Ordenantzaren behin betiko onespena

Erreklamaziorik aurkeztu ez denez gero zerbitzu publikoen eta administrazio jardueren tasak arautzen dituen ordenantza aldatzeko erabakiaren aurka (hirigintza eta ingurumena, II eta III epigrafeak), behin betiko onetsita geratzen da, eta osorik argitaratzen da ordenantzaren testua, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 70.2. artikuluan aurreikusitako ondorioetarako:

#### Zerbitzu publikoak ematearen eta administrazio jarduerak egitearen tasak arautzen dituen ordenantza. Hirigintza eta ingurumena

##### I. Xedapen orokorrak

#### 1. artikulua

Udal honek, Arabako Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauaren testu bategina onesten duen irailaren 29ko Foru Gobernu Kontseiluaren 1/2021 Araugintzako Foru Dekretuaren 23. eta 46. artikuluetan, Konstituzio Auzitegiaren abenduaren 14ko 185/1995 epaian eta Estatuko eta tokiko tasen lege araubidea aldatzeko eta ondare prestazio publikoak berrantolatzeko uztailaren 13ko 25/1998 Legean xedatutakoarekin bat etorritik, eranskinean jasotzen diren zerbitzuak ematearen eta jarduerak egitearen tasak ezartzen eta eskatzen ditu, ordenantza honen baldintzetan, eta horien parte dira.

#### 2. artikulua

Ordenantza hau udalerrri osoan aplikatzekoa da.

##### II. Zerga egitatea

#### 3. artikulua

Zerga egitatea da Udalak benetan zerbitzua eskaintzea edo jarduera egitea, bai eskatu zaiolako, bai zeharka, subjektu pasiboari bereziki eragiten dioten edo mesede egiten dioten partikularren ekintzek edo ez-egiteek eragin dutelako.

##### III. Subjektu pasiboa

#### 4 artikulua

1. Subjektu pasiboak edo zergadunak dira Arabako Lurralde Historikoaren Zergei buruzko Foru Arau Orokorrak 35. artikuluan aipatzen dituen pertsona fisiko zein juridikoak eta erakundeak, baldin eta zerbitzuak edo jarduerak eskatzen badituzte eta horien onuraz edo eraginaz gozaten badute.

2. Zergadunaren ordezkioak izango dira:

a) Etxebizitzen edo lokalen okupatzaileek jasotzen duten onura edo eragina sortzen duten zerbitzuak edo jarduerak direla eta ezarritako tasetan, higiezin horien jabeak, zeinek kuotak jasanarazi ahal izango dizkiete, hala badagokio, dagozkien onuradunei.

b) Arriskua aseguratzen duten entitate edo sozietateak, zerbitzu hauen tasetan: suteen prebentzioa eta itzaltzea; aurri, eraikuntza eta eraisketen prebentzioa; salbamenduak eta, oro har, pertsona eta ondasunak babestea eta zerbitzua mantentzea.

c) Lurzoruari eta hiri antolamenduari buruzko araudian aurreikusitako hirigintza lizentziak emateagatik ezarritako tasetan, edo kontrolerako administrazio jarduerak egiteagatik ezarritako tasetan, lizentzia eskaeraren ordeztuz erantzukizunpeko adierazpena edo aldeztuz aurreko jakinarazpena aurkeztea eskatzen den kasuetan, eraikitzaileak eta obra kontratistak.

#### **5. artikulua**

Hauek ordaindu beharko dituzte tasak:

a) Egindako zerbitzuak edo jarduerak partikularrek eskatzen badituzte, eskatu dituztenek.

b) Egindako zerbitzuak edo jarduerak partikularrek eskatu ez badituzte, baina haiek egindako edo ez egindako zerbaitengatik gauzatu behar izan badira, egindakoa edo ez egindakoa egotz dakiekeenek.

#### **6. artikulua**

Subjektu pasiboarekin batera, ordenantza honetatik eratorritako zerga zorrak ordaindu beharko dituzte tarifak aplikatzeko arauetan aipatzen diren pertsonak.

#### IV. Salbuespenak, murrizketak eta hobariak

#### **7. artikulua**

Salbuespenak eta bestelako zerga onurak aplikatzekoak diren xedapen orokorren arabera emango dira.

Iruña Okako udalerriko administrazio batzarrek ez dute ordaindu behar.

#### V. Zerga oinarria

#### **8. artikulua**

Zerga oinarria da zerbitzua gauzaten den unitateetako bakoitza, dagokion tarifak dioen moduan.

#### VI. Kuota

#### **9. artikulua**

Zerga kuota izango da, eranskinean ezartzen denaren arabera, zerga oinarriari tarifa bat aplikatuz ateratzen dena, ezarritako kopuru finko bat, edo bi prozedura horiek batera aplikatuz ateratzen dena.

#### VII. Sortzapena eta zergaldia

#### **10. artikulua**

Tasa sortzen da zerbitzua edo jarduera egiten denean.

#### VIII. Likidazioa eta diru sarrera

#### **11. artikulua**

Udalak kontzeptu bakoitzarengatik egin beharreko likidazioa egingo du, eta likidatutako zenbatekoa dirutan ordainduko da, ordainarazpen bakoitzerako eranskineko tarifetan dauden arauen arabera.

Hala ere, tasak autolikidazioaren bidez ordaintzeko ere eskatu ahal izango da.

## IX. Tasen kudeaketa

**12. artikulua**

Ordenantza honek araututako tasen likidazio, bilketa eta ikuskatzearen gaineko guztian, eta zergen arau hausteen kalifikazioari eta dagozkien zehapenak zehaztearen gaineko guztian, Arabako Lurralde Historikoaren Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean xedatutakoa aplikatuko da.

## X. Azken xedapena

Ordenantza hau eta haren eranskinak ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko dira indarrean, eta hala iraungo dute aldatzea edo indargabetzea erabaki arte.

**ERANSKINA****I. epigrafea**

## 1.1. Hirigintza lizentziak emateko zerbitzua.

Xedea. Udal jarduera tekniko eta administratiboaren zerga egitatea da egiaztatzea ea udalerrian egin behar diren eta Lurzoruaren eta Hirigintza Antolamenduaren araubidearen Legearen 178. artikulua jasotzen dituen eraikitze eta lurzoru erabiltze ekintzek betetzen dituzten Lurzoruaren Legeak eta udalerriko hiri antolamendurako plan orokorrak araututako eraikitze eta antolaketa hirigintza arauak.

Ez dute tasa hori ordaindu beharko etxe barruetan egiten diren apaintze, kontserbazio eta konpontze lanek.

Tarifa: Obren aurrekontuaren araberakoa.

1. 3.005,06 euro arte: ehuneko 1,8.
2. 3.005,06 - 6.010,12 euro: ehuneko 1,3.
3. 6.010,13 - 30.050,61 euro: ehuneko 0,8.
4. 30.050,61 - 60.101,21 euro: ehuneko 0,6.
5. 60.101,22 eurotik aurrera: 601,01 euro.

## 1.2. Hirigintza txostenak.

Udal zerbitzu teknikoek hirigintza txostenak egitea, okupazio, eraikigarritasun bolumen, lurzati lerrokadura, eraikinetatik mugetarako tarte eta abarri buruzkoak, eta, azken finean, udal planeamenduko hirigintza zehaztapenak interpretatzen dituen zernahi hirigintza txosten egitea partikularrek eskatuta. Gutxienerako kuota: 25 euro.

Zerbitzu teknikoaren kostua orduko: 22,50 euro orduko.

## 1.3. Lurzati bereizte eta elkarketak.

Gutxienerako kuota: 25 euro.

Zerbitzu teknikoaren kostua orduko: 22,50 euro orduko.

## 1.4. Eraikinak lehenengoz okupatzeko eta erabiltzeko udal lizentzia. 270,00 euro.

## 1.5. Lokalak eta eraikinak ikuskatzea.

Eskatzaileak proposatuta eta inork salaketarik jarri gabe: 33,66 euro.

1.6. Titulartasun aldaketak: likidatutako eskubideen ehuneko 5 ordainduko da, hain zuzen jatorri duen negozioarako eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergan likidatuena.

#### 1.7. Lizentziak luzatzea.

Kitatutako eskubide eta tasen ehuneko 5 ordainduko du, eta ehuneko 5 hori, gutxienez, 6,20 euro izango da.

Tasa ofizioz likidatuko da obra egiteko epea bukatutakoan, nahiz eta interesdunak luzapenik eskatu ez, baldin eta hirigintza legeek lizentzia luzatzea ahalbidetzen badute.

## II. Epigrafea. Sailkatutako jarduera baimenak emateko zerbitzua

Xedea.

1. Tasaren zerga egitatea da apirilaren 23ko 7/2012 Legearen laurogeita hirugarren artikuluan jasotako jarduerak eta Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzko abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 1. eranskineko I. C eta I. D apartatueta jasotako jarduerak ezarri, aldatu edo zabaltzeko jarduera sailkatuaren lizentzia emateko behar diren zerbitzu tekniko eta administratiboak ematea. 7/2012 Legearen artikulua horrek idazketa berria ematen die Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteko 3/1998 Lege Orokorraren II. eranskinaren izenburuari eta edukiari.

Tarifa: Gutxienezko kuota: 150,25 euro.

42,07 euro gehiago jarduera jartzeko aurkeztu den obra proiektuaren aurrekontuko 6.010,12 euroko zatiki bakoitzeko.

Aplikatzeko erregelak.

#### 1. Hauek dira jarduera irekitzeak:

a) Establezimendua lehenengo aldiz instalatzea, bere jarduerak hasteko.

b) Establezimenduko jarduera aldatu edo handitzea, nahiz eta titularra ez aldatu.

c) Establezimendua handitzea eta bertan edozein aldaketa egitea, baldin eta artikulua honen 1. zerbaki adierazitako baldintzetan eraginik badu eta, beraz, baldintzak berriro egiaztatu behar badira.

2. Industria edo merkataritzako establezimendu izango da eraikuntza bizigarri oro, jendearentzat irekita egon edo ez, baldin eta ez bada erabiltzen soilik etxebizitzatarako, eta:

a) Erabiltzen bada jarduera ekonomikoaren gaineko zergaren (edo lizentzia fiskalaren) menpe dauden fabrika, artisautza, eraikuntza, merkataritza eta zerbitzuen inguruko enpresa jardueratarako.

b) Jarduera horietarako erabiltzen ez bada ere, horien lagungarri edo osagarri gisa erabiltzen bada, edo horiekin harremanak izanik onurak edo aprobetxamendua ematen dien jardueretarako baliatzen bada, besteak beste, gizarte egoitzak, agentziak, entitate juridikoen ordezkaritzak edo sukurtsalak, idaztokiak, bulegoak, langelak edo estudioak.

3. Tasa eta hori ordaindu beharra sortzen da zerga egitatea gauzatzen den udal jarduera hasten denean. Ondorio horietarako, udal jarduera hasitzat joko da jardueraren baimen eskaera aurkeztu den egunean, subjektu pasiboak espresuki jakinarazten badu.

4. Establezimendua dagokion baimena eskuratu gabe ireki bada, tasa sortuko da udalak benetan hasten duenean bere jarduera, egiaztatzeko establezimenduak betetzen dituen eska daitezkeen baldintzak; horrek ez du kentzen administrazio espedientea hasia establezimenduaren irekiera baimentzeko edo establezimendua ixteko, baimena ematerik ez badago.

5. Behin zerga ordaintzeko beharra sortuta, eskatzaileak betiere tasa ordaindu egin beharko du, eta horretan ez du eraginik izango eskatutako baimena ukatu izanak, establezimenduaren ez-ugarriak aldatzeko baldintzapean eman izanak edo eskatzaileak uko edo atzera egin izanak baimena eman eta gero.

### III. epigrafea. Jarduera hasi aurreko komunikazioa

Xedea. Tasa honen xede izango da izaera profesional, komertzial edo industrialeko jarduerak garatzen dituzten establezimenduak, instalazioak edo lokalak ireki aurreko jakinarazpenetan egiten diren kontroleko administrazio jarduerak egitea, bai eta jarduera horietarako lagungarri edo osagarri diren edo horiekin zerikusia duten espazioetan egiten direnak ere.

Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Legearen II. B eranskinarekin bat etorritik eta 10/2021 Legearen I. eranskinaren C eta D apartatuekin bat etorritik, aldeztuak jakinarazi behar diren mende dauden jarduerak edo instalazio sailkatuak.

- a) 250 m<sup>2</sup> baino gutxiago: 363,43 euro.
- b) 250 m<sup>2</sup> baino gehiago eta 500 m<sup>2</sup> arte: 749,35 euro.
- c) 500 m<sup>2</sup>-tik gora: 1.772,05 euro.

Aplikazio arauak:

1. Tasaren sortzapena haren zerga egitate diren udalaren kontrol jarduerak hasten direnean gertatuko da.

2. Ordainarazpen honen ondorioetarako, hauek izango dira aldeztuak jakinarazpena lortu beharra duten establezimendu edo instalazioak:

a) Hasierako instalazioak, bai eta merkataritza, industria edo zerbitzuetarako erabiltzen diren makinak edo beste elementuak jartze hutsa ere, nahiz eta berehala ez abiarazi, funtzionatu edo ireki.

b) Lokalez aldatzea.

c) Jarduera aldatzea, nahiz eta izena, titularra edo lokala berbera izan.

d) Jarduera handitzea; horrelakotzat hartuko da jarduera ekonomikoen gaineko zergaren kuota igotzea, salbu eta igotzeak zergak aldatu direlako gertatzen badira.

e) Lokalak handitzea.

3. Aurretiazko jakinarazpena aurkeztu ondoren, jarduera aldatzen duten establezimenduei tasa likidatuko zaie, honako kasu hauen arabera:

a) Jarduera berriak jardueren gaineko zergaren atala edo zatiketa aldatzea badakar, hari dagokion tasa likidatuko da.

b) Aldeztuak jakinarazpenak establezimendu berean jarduera bat baino gehiago egitea aurreikusten badu, zenbateko handieneko epigrafearen arabera ordainduko da zerga.

4. Aldeztuak jakinarazpena aurkeztu ondoren, interesdunek berariaz uko egin ahal izango diote, eta, kasu horretan, ordaindutako tasaren ehuneko 80 itzultzeko eskubidea izango dute, edo, ordaindu ezean, likidazioaren ehuneko 20 ordaintzekoa, baldin eta uko egiten badiote, hogeita hamar eguneko epean, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera; edo ehuneko 50 itzultzeko edo murrizteko eskubidea, uko egiten badiote, jakinarazpena egin eta hurrengo 30 egun igaro ondoren eta hurrengo hiru hilabeteak igaro baino lehen.

5. Titulartasun aldaketan jakinarazpenek ez dute kargarik ordaindu beharko, baldin eta jarduera aldatzen ez badute.

6. Tasa hau autolikidazio prozeduraren bidez bildu ahal izango da.

### IV. epigrafea. Arriskutsuak izan litezkeen animalien lizentziak eta erregistroa kudeatzea eta bestelako zerbitzuak

I. Xedea.

Tasa honen gaia da:

- a) Arriskutsuak izan litezkeen animalien lizentzia ematea edo berritzea.
- b) Arriskutsuak izan litezkeen animalien erroldan inskribatzea.

II. Zerga kuota.

Lehenengo tarifa: arriskutsuak izan litezkeen animaliak edukitzeko lizentzia eman edo berritzea.  
Tasa 60,00 euro da.

Tasa hau sortuko da emakida eskatzen den egunean, eta 5 urterik behin, lizentzia berritzeko eskaera egiten den unean.

Bigarren tarifa: arriskutsuak izan litezkeen animalien udal erroldan inskribatzea.

Tasa 10,00 euro da, eta erregistroan eskaera egiteko unean kobratuko da.

Hirugarren tarifa: lizentziaren bikoiztuak egitea. Tasa 3,00 euro da.

**V. epigrafea. Kaleko salmentarako baimena emateko tasa**

Xedea. Tasa honen gaia da kaleko salmentarako baimena ematea edo berritzea.

Kuota: 6,20 euro.

**VI. epigrafea. Arma txartela (4. mailakoa) emateko tasa**

Kuota: 15 euro.

Iruña Oka, 2023ko otsailaren 14a

*Alkate-lehendakaria*

**MIGUEL ÁNGEL MONTES SÁNCHEZ**